

Doktore Tesiaren laburpena

Ibarretxe Lehendakariak azken urtetan emandako aldaketa sakonen azterketarekin hasten du tesia: “Gure mundua mundu konplexua da. Arazo konplexuak, konponbide konplexuak, aldaketa sakonak, eraldaketa bortitzak. Edgar Morinen hitzetan, aurrerantzean *konplexutasuna kudeatu* beharko da. Gainera, guzti hori gutxi ez balitz, une honetan planeta-mailako krisi sakona bizi dugu, eta honek aurretik bizi izandako krisiekin konparatuz ezaugarri ezberdinak ditu. Izan ere, kanpotik itxura poliedrikoaz agertu zaigun krisi hori, hau da, sistema juridikoaren, politikoaren, ekonomikoaren, soziologikoaren, ingurumeneko sistemaren eta kulturalaren krisi hori, beste ezer baino lehen, krisi axiologikoa da”.

Krisiak mundu osoari heldu dio eta oinarriak ukitu ditu, “XX. mendeko azken hiru hamarkadetan, mendebaldeko gizartean, Chicago-ko eskolaren postulatuen ondorioz eraikitako ikusmolde neoliberalak hartu du tokia eta izaera. Orain, neoliberalismoa erasoaldi bete-betean ari da mundu osoan. Merkaturia inposatu zaigu, eta horrek, azken finean, zera suposatzen du, gizabanakoa alde batera utzita, edozein justifikazio moral baliabideen moraletik datorrela, oinarri utilitarista duela eta merkatu-sistemarekin berarekin identifikatzen dela. Merkatu totalizatzailetik oinarri etikoak dituen ekonomia-praktiketara itzuli behar gara, batez ere jakinda, ezin dela ekonomia-proiekturik sortu gizaki kontzeptua bere osotasunean hartzen duen bizi-proiektu barik. Izan ere, gaur egun, Eduardo Galeanoren hitzetan, *garapenaren bidaian, nabigatzaile baino hondoratu gehiago dago.*”

“Gaur egun badakigu kultura (ulermen partekatuen multzo gisa) eta heziketa iraunkorra direla politika, ekonomia eta bizitza elkartzten dituzten “zilarrezko zubiak”. 90. hamarkada bukaeran, Baudrillard-ek honako hau azaldu zuen: *Unibertsaltasunak bere aukera historikoa izan du. Hala ere, gaur egun, aukera gabeko mundu-ordenarekin aurrez aurre gaude. Alde batetik, mundializazio argi eta saibestezina dugu, eta bestetik, singularitasunen noraeza edo matxinada indartsua, eta gauzak horrela, askatasuna, demokrazia eta giza-eskubideak bezalako kontzeptuak indargabetuta geratzen dira, desagertutako unibertso bateko mamu beltzak balira bezala.*”

Juan Jose Ibarretxek tesian dio globalizazioak ez dituela konponbideak eskaintzen mundu globalizazio berorren ondorioz mundu osora hedatu diren mendebaldeko arazoei aurre egiteko. “Gaur egun, “*gizarte globalean*” beste mundu bat posible delako itxaropena ematen diguna “*tokikotasuna*” da. “Globala denak tokikotasuna baliogabetzen du” paradigma zaharretik, “*gaur eguneko*” paradigmara pasa gara: “*local moves the world*”. [“*tokikoak mugiarazten du globala*”].” . Eta bide horretan, Euskadiren kasuan erabakigarria izan zen Gernikako Estatutuaren bitartez burujabetza berreskuratzeko bidea zabaldu izana, honek euskal gizarteari bere erabakiak hartzeko aukera eskaini diolako, “autogobernuaren berreskuratzeko ahalbidetu zuen 80. hamarkada hasieran Garaikoetxea lehendakariak gidatutako lehenengo Eusko Jaurlaritzak ekonomia ekoizlearen aldeko eta ekonomia espekulatiboaren alde batera uzteko herri gisako apustu estrategikoa hartzea. Erabaki zail hori euskal erakunde demokratikoei hartu zuten, Euskal Herriak izandako tradizio ekoizleari jarraiki. Ez da ahaztu behar gure gizartearen gogo eta irmotasunari esker (elementu kulturala) eta gure burukideenari esker (lehenengo elementuari lotuta doakion erabakitasun politikoa) egin zela gure industria-sare propioaren aldeko, “*ekonomia errealearen*” aldeko apustua, garai hartan. Erabaki hori egokia izan zela bistan da. Memorian onerako, gogorarazi behar da ekonomia errealearen aldeko apustua egin zenean, zenbait gizarte-eragilek, politikariek eta komunikabideek asko kritikatu zutela; egon ere, garai hartan, mendebaldeko gizartean hain modan zeuden teoria neoliberalak (70. hamarkadako “*petrolioaren krisiaren*” ondorioz sortutakoak) liluratuta baitzeuden.”

Lehendakariak, 1998tik 2008ra bitarteko hamar urteak aztertzen ditu eta garai horretan Euskadin gertatu ziren eraldaketak. “Beraz, 1998. urtea gakoa izango da hurrengo urteetan egituratuko den printzipio etikoaren eraikuntza-prozesua ulertzeko. Paradigma-aldaketa hori herrialdeko eragile politiko eta sozial guztiek, baita ETAK ere, teoriarik eta adierazpen publikoen bidez bakea eta politikaren artean desberdindu behar zela onartzerakoan gertatu zen -besterik izan dira garai hartatik aurrera gertatu diren Aznar eta Rodríguez Zapatero presidenten espainiarren negoziazio-prozesu biak-. Bakea, bakea dela, eta, aldiz, akordio politikoak, akordio politikoak direla, bigarren horiek soilik eta eskusiboki alderdi politikoei dagozkielarik. Une hartan bertan ere, ondorioztatu zen indarkeria eta terrorismoaren biktimekin egondako erlazio eta gertutasunean beste etapa bat ireki behar zela. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak elkartasunerako, laguntzarako eta onarpenerako egiturak sortu zituen, eta lehen aipatutako guztiek -berriz ere, praktikan gertatu zena beste gauza bat da- adierazi zuten biktimekin “*politika*” hauteskundearen eta politikaren agendetatik desagertzeko konpromisoa.”

“Hortaz gain, mende bukaerak eta hurrengo mendeko hasierak printzipio demokratikoari loturiko paradigman aldaketak ekarri zituen. Lehenengo, 1998ko “*Ardanza dokumentua*” izan zen, eta aurrerago, 1998 eta 2001. urteen artean, Eusko Jaurlearitzak egindako gobernu-programek argi ezarri zituzten printzipio demokratikoaren eta erabakitzeko eskubidearen bidezko aldarrikapena zirela XXI. mendeko Euskal Herriaren gizarte, politika eta ekonomia alorrak eraikitzekeo ganga-giltzarria”.

“Baita urte hauetan ere, hainbat aldaketa gertatu dira giza garapen iraunkorraren paradigman. 2001. urtetik aurrera, berrikuntza sozial, zientifiko eta teknikoak argi definitu ziren gure gizartearen arlo sozioekonomikoko bilakaera-palanka gisa XXI. mendean. Hori baino lehen, 80. hamarkadan, herri honen bilakaera-palanka “*bizirauteko irrika*” izan zen eta horrek erakutsi zigun lehiatzen. Geroago, 90. hamarkadan, kalitatearen aldeko apustuak, gure buruak kanpora irekitzeko apustuak erakutsi zigun, bai lehiatzen, bai elkarlanean aritzen ere. Hori dela eta, hau da, 80. hamarkadan lehiatzen ikasi genuelako eta 90. hamarkadan, bai lehiatzen, bai elkarlanean aritzen ikasi genuelako heldu gara XXI. mendean paradigma aldaketa honetara: “elkarlanean berritzen ikastea” izenekoa.”

Paradigma aldaketa horiek, banan bana eta sakon aztertu ondoren, Ibarretxek sistema teorikoa garatzen du, beste herri, gizarte eta enpresetan erabilgarria izan daitekeena. Eta hori ondorengo hamar ondorioetan laburtzen du.

Lehenengoa. “Euskadiren kasua”: printzipioetan oinarritutako eredu integrala.

“Euskadiren kasua” autogobernuak bere hasieratik, 1998-2008 urteetan, izan duen zimendatze irmoaren gaineko garapenaren ondorioa da, hiru printzipiotan eraikitzen den eredu sozio-politiko-juridiko-ekonomikoa: printzipio etikoa, printzipio demokratikoa eta giza garapen iraunkorra.

Hiru printzipio horiek banaezinak eta utziezinak dira euskal gizartearentzako. Horien gainean, aurrerapena ulertzeko modu berezitu bat garatu da. Bai emakume, bai gizonak ahazten dituen hazkunde ekonomikoaren kontzeptuaren aurrean, funtsezko subjektu eta helburu gisa pertsona bera eta, kolektiboki Euskal Herria, duen aurrerapen-eredu bati eman zaio bidea. Herri hau moderno da, eta nahiz eta arazoak dituen -mendeetako gatazka politikoa eta XX. mende erdialdeko indarkeria terrorista- aurrera egiten du, ez du itxaropenik galtzen eta beti dago ahaleginetan justizia sozialaren eta gizabanako- eta talde-askatasunaren gainean bakea eraikitzekeo.

Gernikako Estatutuarekin gertatu zen autogobernuaren berreskurapenetik honantz izandako eta, batez ere, 1998-2008 aldian sortutako ekimen-multzoa blaitu duen bezala, aipatutako hiru printzipioen garapen banaezinak, “Euskadiren kasua” ekintza sozial, politiko eta ekonomikoen eredu integral bat bihurtu du, gainera. Arrazionaltasuna, uste osoa eta autogobernu-ahalmena batu dituen izaera integral horretan egon da bere indar nagusia, zentzu sozial, politiko eta ekonomikoari dagokionez, munduari propioa eta bere inguruko gauzetatik desberdina den zerbait eskaintzeko gai izan dena, eta pertsona, Herria eta elkartasuna lehiakortasunean aldarrikatzen duena, gaur egun menpean gauzkan pentsamendu sozio-politiko-ekonomiko neoliberalak goraiapatutakoa ez bezala.

Bigarrena. Giza eskubide guztiak pertsona guztientzat

Printzipio etikoa ereduaren oinarrietako bezala ezartzeak ekarri du Giza eskubideen defentsa Euskal Herri Erakundearen ekintzen muina izatea.

1998-2008 aztertutako aldian, pedagogia sozialean aurrerapena egin da eta, Euskadin, espero betirako, Giza eskubideak banaezinak eta saihestezinak direla onartzeko beharra finkatu da, eta baita Giza eskubideen defentsan ezin dela espazio ezkuturik existitu ere. Giza eskubide guztiak pertsona guztientzat. Jada bide nagusi horretan dago euskal gizartearen gehiengo zabalak.

Horretaz, ETAk bere indarkeriaren basakeria ikaragarria, eraginkortasunik eza eta moralitaterik eza ulertu behar

du, eta berau behin betiko uzteko asmoa modu nabarmenean erakutsi behar du, inongo prozesu politikotan inolako zeregin berme-mailerik berarentzako gorde barik.

Alderdi politikoek eta herri-erakundeek, euskaldun, espainiar eta europarrek, aipatutakoaren inguruan hausnartu behar dute. Izan ere, indarkeria eta terrorismoa ez dira demokrazia gutxiagoz erasotzen, demokrazia gehiagoz baizik, hau da, Giza eskubideekiko errespetuaren unibertsalizazioaren bitartez.

Giza eskubideen inguruko nazioarteko erakundeek eta Nazio Batuetako errelatoreak berak ondo adierazten dutenez, torturak eta tratu txarrak ez dira bidea inoiz. Beharrezkoa da erakunde publiko guztiek pertsona ororen Giza eskubideak behatu eta errespetatzea, eta kartzelan dauden pertsonen bergizartratzea helburu demokratiko gisa duen zigor- eta espetxe-politika berri bat garatzea, haien bizilekuetatik hurbilen dauden tokietan espetxe-zigorra betearaztearen bidez.

Giza eskubideekiko errespetu osoko ikuspegi honetatik, herritarren eskubide zibil eta politikoak murrizten dituzten ekimenak ere ez dira onargarriak, hala nola, Alderdien Legea eta honen hautazko aplikazioa, "arerioaren zigor-zuzenbide" deitzen den gizartearen kontrol-sistemaren ikusmolde punitibo soilean kokatzen direlako. Legedi hau eta bere azpian dagoen filosofia indargabetu eta alde batera utzi behar da. Euskal gizartearen aniztasun demokratikoa eta bere dibertsitate politikoaren aitorpena normalizazio eta bizikidetzarako oinarrizko faktoreak dira. Gure gizartean diren sentsibilitate politiko desberdinen erakundeetako ordezkariak, elkarrizketaren bitartez, konponbideak bilatzeko bidean, asko laguntzen duen elementua da.

Hirugarrena. Errespetuzko elkarrizketa.

Historian zehar, gatazkak konpontzeko hainbat modu erabili da. Esperientziak erakutsi digu bide bakarra dagoela, aurrera egiteko metodo bakarra: elkarrizketa. Aurrerapauso handi eta txiki guztiak, ilusio guztiak izugarri hazi dira euskal gizartean elkarrizketa eta negoziazio-prozesuak hasi direnean. Elkarrizketa da porrot ez egiteko eta une honetara arte lortu ez diren oinarrizko akordioak lortzeko balio duen formula bakarra. Elkarrizketa jendaurrean eta pribatuan, bi alderen arteko elkarrizketa eta elkarrizketa aldeaniztasuana, beto pertsonal edo politikorik gabeko elkarrizketa, aurretiazko baldintzarik gabeko elkarrizketa, elkarrizketa konponbidea aurkitzeko formula gisa.

Ez dago aitzakiarik elkarrizketa ukatzeko. Ez indarkeria -ETA existitu ala ez, elkarrizketa eta akordio politikoak egon behar dira-, ez aurkez daitezkeen proposamen politikoak konstituzioaren kontraketat jotzea ere, ez dira elkarrizketari uko egiteko arrazoiak. Elkarrizketaren kontzeptua eta bere praktika berreskuratu behar ditugu: elkarrizketa bakerako, elkarrizketa normalizazio politikorako, elkarrizketa elkarbizitza demokratikorako.

Elkarrizketak oinarrizko printzipio bat eskatzen du soilik: errespetua. Giza eskubideen errespetua, bazterketarik gabeko proiektu politiko guztien errespetua, printzipio demokratikoaren errespetua, jardute demokratiko betean euskal gizarteak hartutako erabakienganako errespetua.

Laugarrena. Elkarrizketaren bidezko indarkeriaren amaiera, bakea eta adiskidetzea.

Bizitzarekiko eta Giza eskubideekiko errespetua da abiapuntua. Gizakion bizitza erasotzea, norbait erailteza, norbaiti estortsioa egitea edo bestela pentsatzen duen norbait torturatzea Gizateriaren kontrako krimena da eta gertatu ezinezkoa da edozein gizartetan. Bizitzarekiko eta pertsona ororen Giza eskubideekiko errespetua abiapuntua izan behar da edozein bake-prozesurentzako, eta indarkeriaren eta terrorismoaren biktimen aitorpen etiko, moral eta materiala betebehar bat da euskal erakunde eta, bere osotasunean, euskal gizartearentzat.

Bide politiko eta demokratikoak soilik eta bakarrik erabiltzeko apustua izan da denok onartu dugun baldintza gatazka politikoari eta indarkeriazkoari konponbidea emateko; baita Espainiako gobernuak ere 1998-2008 epealdian ETArekin garatu zituzten negoziazio-prozesuetan erabili ere. Horrela, euskal gizartea bera Eusko Legebiltzarraren bitartez, eta Espainiako gizartea, Diputatuen Kongresuaren bitartez, dira baldintza hau gauzatzeko eta indarkeria politikagintzarako tresna gisa ukatzea eskatzen dutenak *sine qua non*, eta hori, indarkeria elkarrizketaren bidez amaitzeko edozein prozesu egin baino lehenago gertatzea edo gatazka politikoko edozein

mahai negoziatzailetan eseri baino lehen, parte-hartzaileek bete beharreko baldintza izatea.

Baldintza horiek kontutan hartuta, elkarrizketaren bidezko indarkeriaren amaiera defendatzen jarraitzen dugu. Egia da saiakerak egin direla eta ez dela lortu, baina ezin dugu etsi; saiatzen jarraitu behar dugu, behin eta mila bider.

Euskal Herriak bakea eta adiskidetzeta biziki lortu nahi ditu. Egian, justizian, askatasunean eta adiskidetzean oinarritutako bakea. Horretaz, horrek ez du esan nahi iragana estaltzeko errezel lauso bat jarri behar denik, ezta herri bati aurretik gertatu diren ekintza krudelen inguruan amnesia kolektiboan murgiltzeko agintzerik ere; aitzitik, horien irakurketa kritiko eta analitikoak egin behar da.

Bosgarrena. Euskal Herria existitzen da.

Errealitate ukaezin baten aurrean gaude: Euskal Herriaren existentzia. Gainera, gaur egungo euskal gizartearen parte handi eta askotariko batek Euskal Herria existitzen dela defendatzen du, eta, hori dela eta, bere etorkizuna askatasun osoz eta demokratikoki erabakitzea berari dagokiola eta munduko eta Europako markoan bere tokia izan behar duela.

Indarkeria da Giza eskubideen eta askatasunen arerio nagusia. Horregatik, oinarrizko lehentasuna da bakeari toki bat aurkeztea, eta hori exijitzen dio euskal gizarteak ETARI armak alde batera uzteko oihuz. Hori esanda, indarkeriatik at, hori baino urrunago doan arazo politikoa dugula onartu behar dugu, eta arazo horren konponbidea aurkitzea euskal gizarteari eta ordezkari politikoei dagokie. Izan ere, euskal gatazka politikoa konpontzeko akordioak lortu ala ez, ETAREN indarkeria desagertu egin behar da; eta ETA existitu ala ez, Euskadiren eta Estatu espainiarraren arteko bizikidetzarako akordioetara iritsi beharra dago.

Eztabaidaezina da elkarrizketa politiko sakon bati ekin behar zaiola, horrela, gure bizikidetzarako hain garrantzitsuak diren nortasuna, burujabetza, lurraldetasuna, autodeterminaziorako eskubidea eta beronen jarduera adostua, Euskadiren presentzia Europan eta munduan, lortu nahi den autogobernu-maila eta Euskadiren eta Espainiako Estatuaren arteko harreman-markoa bezalako kontzeptuen inguruko normalizazio politikoa helburutzat duen akordio bat lortzeko. Arazo politikoek konponbide politikoak izan behar dituzte.

Seigarrena: Erabakitzeke Eskubidea eta Ituna

Demokraziaren senari zor zaion errespetutik, Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeke duen eskubidea aitortzea, eta hori itun eta negoziazioen bitartez gauzatzeko konpromisoa dira konponbidearen giltzarriak.

Normalizazio politikoari buruz ari bagara, euskal gatazkaren konponbidean indarkeria alde batera utzita aurrera egin nahi badugu, berriro ere, konpontzeke dagoen gai bati aurre egin behar diogu: zein da euskaldunen gehiengoak nahi duen Estatuarekiko harreman-eredu berria? Izan ere, normalizazio politikoaren benetako arazoa ez datza transferentzia-multzo batean soilik. Arazoa, termino politiko eta demokratikoetan, hauxe da: Euskal Herria ez dela nortasun propiodun subjektu politiko gisa kontsideratzen, ezta dagozkion eskubide historikoak Espainiako konstituzioa baino lehenagokoak direla kontsideratzen ere, eta, azken finean, herri honek bere etorkizuna aske eta demokratikoki erabakitzeke gaitasuna duela.

Beraz, beharrezkoa da akordio politiko bat lortzea euskal gizarteak erabakitzeke duen eskubidearen inguruan, eta horren jarduera –euskal herritarrek berretsi ondoren– ordenamendu juridikoan sartzeko. Horrela, elkarrenganako errespetuaz eta Europar Batasunaren markoan, Euskadiren eta Estatu espainiarraren arteko bizikidetzeta politiko-sozial adeitsu bat lortu XXI. menderako.

Zazpigarrena. Euskal Estatutu Politiko Berriaren Proposamena: normalizazio politikoari ekarpen bat.

Gobernu espainiarrak eta Espainiako gorteek (inolako negoziazioerik egin gabe) Estatutu Politiko Berriaren proposamenari eta euskal erakundeek gehiengo osoz onartutako kontsulta demokratiko ez-lotesle bat egiteari

emandako ezezko borobilak -lehen euskal ekimen demokratikoen inguruan, eta orain, Kataluniako Estatut-aren inguruan- alde batetik, eta baita Konstituzio Auzitegiaren epaiak, beste alde batetik, azalera ekarri dute Estatuak berak birsortzeko duen beharra eta hori aurrera ateratzeko beharrezkoa den konstituzio-aldaketa.

Laburbilduz, estatu-ereduaren inguruko eztabaida, gaur egun, ez da tabu bat Espainiako Estatuan. Egungo agenda politiko eta instituzionalean ageri da, eta ez bada horren inguruan akordiorik lortzen, hurrengo urteetan ere bertan jarraituko du, agian, gogortasun politiko eta sozial handiagoaz. Gobernuak, Gorteek eta Espainiako Konstituzio Auzitegiak Euskadin demokratikoki onartu diren ekimenekiko erakutsita duten errespetu eza ez da Estatuaren indarraren erakusgarri, ahultasunarena baizik. Gure horren inguruko egiaztapena da erabaki juridiko-politiko horiek guztiak, hain zorrotzak diruditenak, defentsa-jarrera baten parte direla, eta “ez da posible” aditzera eman nahi duten erantzunek, aldiz, jarraitu beharreko bide argiago bat uzten digutela: ekimen politiko demokratikoak aurkezten jarraitzea.

Nahiz eta autogobernuaren hasieratik normalizazio politiko prozesu bati eusteko bidea urratzen joan, 2001. urtean zehaztu ziren Eusko Legebiltzarrean bizikidetzako marko berri bat jartzeko eztabaida ireki eta zabala egin ahal izateko oinarriak. Eztabaida politikoan, eztabaida parlamentarioan eta eztabaida sozialean zenbait urte ibili eta gero, egindako lanak fruituak eman zituen: Euskadiko Erkidegoaren Estatu Politikoaren proposamena, zeina Eusko Legebiltzarrak gehiengo absolutuaz onartu zuen.

Ondorioztatu behar dugu orain arte lortu dugun normalizazio integratzaileko akordioek baino zabalagoa den beste akordio bat lortzeko, elkarrizketa-fase berriak esploratu behar ditugula. Duda barik, baina, akordio berrien aukera defendatu behar den irimotasun eta uste osoarekin, Eusko Legebiltzarrak hartutako erabakien inguruan errespetua erakustea eskatzen digu marko demokratikoak. Horren inguruan, azpimarratu beharra dago Eusko Legebiltzarrean 2004ko abenduaren 30ean gehiengo osoz demokratikoki onartutako erabakiak, beste batzuen artean, aktibo publiko bat osatzen duela, eta normalizazio politikoaren inguruko akordio bat lortzeko interesgarriak diren ekarpenak dituela.

Zortzigarrena. Nortasuna, autogobernua eta giza garapen iraunkorra

Identitatearen, kulturaren, euskal hizkuntzaren defentsa ez dago gaur egungo mundu globalizatuan nortasun bat aldarrikatzea bezalako ekintza politikoarekin, bidezkoa den ekintza politikoarekin soilik lotuta; hortaz gain, Giza Garapen Iraunkorraren lorpenarekin lotura zuzena du.

Euskal Herriak (edo Euskadik), euskal kulturak, euskal hizkuntzak (euskarak) bere tokia izan behar dute Europan eta munduan. Euskal nortasunaren defentsa (ez beste identitateei bizkarra emanez edo haien aurka eginez, baizik eta horiekin bizikidetzan) bidezko aldarrikapen politiko baten eta garapen ekonomiko, sozial eta politiko osasuntsuaren eredu baten atzean dago.

Etorkizunera begiratu behar da, sustraiak ahaztu gabe. Sustraiturik lehiatu behar da. Sustraiturik berritu behar da. Azken 30 urteek erakutsi digute autogobernua (edo burujabetza) ongizatearekin lotuta dagoela. Autogobernua bitarteko dela, herri gisa gure nortasunean sakontzearekin dago Giza Garapen Iraunkorra lortzea. Hala izan da, hala da gaur ere, eta areago izango da etorkizunean.

“Euskal kasuak”, gainera, erakusten digu giza garapen iraunkorraren estrategia egingarria dela. Ideia hori gauzatu ahal da! Merkatuari begietara begira dakioke, pertsoneri begietara begiratzeari utzi barik. Neoliberalismoa “gauzen izaera dela” edo “errealitatearen irakurketa zientifikoa” dela baieztatzen duten jarrera etsien aurrean, “euskal ereduak” adibide apala, baina eraginkorra, irudikatzen du, eta argumentu horien alderdikeria agerian uzten du. Argi dago “euskal ereduak”, etsipena eragitetik urrun, eredu neoliberaletik at beste aukera batzuk badaudela erakusten digula, ahal dela! Nahi badugu, ahal dugula.

Azken finean, humanismoa eta berrikuntza sozial, zientifiko eta teknikoak mundura irekirik dagoen bere nortasunean barneratzen dituen herriak palanka boteretsu bat du aldaketa sozial, politiko eta ekonomikoa eraldatzeko.

Bederatzigarrena. Autogobernua ongizatearekin lotuta dago euskaldunentzako.

Autogobernua herri-estrategiaren gakoa da. Printzipio etiko eta demokratikoen gainean eraikita dago, eta azken 30 urteetan -zehatzago, aztertutako 1998-2008 aldian- Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatu den giza garapen iraunkorrak lortutako arrakasta azaltzen duten gainontzeko elementuentzako txapela da.

Lan honetan azaldutako frogak enpirikoek erakusten dute -Gernikako Estatutua onartu zenetik, eta, batez ere, 1998-2008 epealdian-, euskal gizartearentzat, autogobernua ongizatearekin lotuta dagoela. Horretaz gain, erakusten digute, funtsean, autogobernua izan dela Euskal Autonomia Erkidegoan giza garapen iraunkorraren eredu garatu duena, eta horrek ahalbideratu du bertako herritarren garapen ekonomiko orekatu eta sozialki konprometitua.

Azpitarratu behar da pertsona dela euskal ereduaren ardatza. Pertsona, kontzepzio kantiarraren arabera ulertuta, gune soziokultural konkretu batean garatzen dena, eta bere baitan helburua bailitzan ulertzen dena. Horregatik, autogobernua bere gizon-emakumeen, hau da, Euskal Herriaren aurrerapen osoari begira dago bideratuta.

Ikerketa honen ondorioak erakusten digu euskal autogobernua defendatu eta horretan sakontzea, nortasun politiko, kultural eta ekonomiko euskalduna defendatzea, nazioaren, herriaren bidezko proiektu politiko baten atzean egon dela. Baina ez horren atzean bakarrik, baita -banaezina den ezaugarri gisa- bere inguruarekiko desberdina eta propioa den elkartasunean ematen den lehiakortasunaren ereduaren garapenaren atzean ere.

Autogobernu ekonomikoari, politikoari eta sozialari zentzua eman dion Herri ikusmoldea izateak egin du posible euskal eredu. Herri ikusmolderik gabe ezinezkoa da partekatutako buruzagitza publiko-pribatu-soziala. Ezin da eredu propio eta desberdindu bat, ekimen sozialarekin partekatutako herri-estrategia bat garatu, pertsonentzat aurrerapen etikoa sor dezakeena. Ikuspegiak gabe -Herri ikusmolderik gabe- herria hil egiten da .

Horrela, herri, autogobernu eta partekatutako lidergoa biltzen dituen ikusmoldeak "Herri proiektua" eraikitzen dute, hurbiltasunetik, gertutasunetik, eta arazoak horien ulermenetik ulertzeko.

Hamargarrena: Autogobernu-esparru berri baten beharra

Lan honetan zehar frogatu da gaur egungo autogobernu-esparruak -Gernikako Estatutuaren onarpenaren ondorioz sortutakoak- Euskal Erakundeei dituzten errekurtsio erabilgarriak hobeto erabiltzeko ahalbidea eman diela, gastu eta inbertsio publikoen lehentasunen berresleipenaren bidez, eta euskal gizarteari aurreratzeko modua eman diola giza garapen iraunkorra lortze aldera.

Era berean, lan honek Gernikako Estatutuaren ez betetzeen, funtzionamendu-arazoen eta bertako eredu ekonomiko, sozial eta politikoek dituzten gabezien inguruan aurkeztutako frogak izugarriak dira. Egia da deskribatutako oztopoetako batzuk bere garaian konpondu ahal izan zirela, eta hori dela eta, denbora luze itxaropena egon zen, pentsatuaz Estatutua osatuko zela, eta ekonomiak, ongizateak eta baita bakegintzak ere ondoriozko efektu onuragarriak izango zituztela. Aldiz, urteen joan-etorriak ongura nahi horiek berrestetik urrun, Estatutua agortuta dagoen konbentzimendua zabaldu dute; ez bakarrik Espainiako administrazioako agintariak prozesua itxita dagoela uste dutelako, baizik eta arrazoi larriago batengatik: bere inguruan eho den eta oraindik ehotzen ari den lege- eta jurisprudenzia-amarauna dela-eta; izan ere, amaraunak Estatutuaren interpretazioa mugatu du, bere garapena galarazi du eta bere ahalmenen zati handi bat baliogabetu du, halaber, parte biren arteko ituntzat hartzeko emandako hitza zalantzan jarri du. Azken finean, Estatu nazioaniztuna, gizarte askotarikoa baztertu duen ikuspegi zentralista berretsi da.

Edonola dela ere, egindako ikerketan argi ikusten da Gernikako Estatutuak berez dituen mugak eta bere gain egin den irakurketa murriztaileak, eskuratutako eskumenen kudeaketa hobetzeko balio duen tresna bihurtu duela, baina etorkizuneko erronkei erantzuteko agortuta dagoela. Horrela, ikuspuntu ekonomiko eta sozialekin, Gernikako Estatutuaren gaur eguneko marko instituzionala bidegurutze batean dago, Euskadin denbora batetik honantz aurkezten diren erronka ekonomiko eta sozialei arrakastaz aurre egiteko nahikoa ez den heinean. Are gehiago, esan daiteke Gernikako Estatutuak gure gaur egungo eredu ekonomiko, sozial eta politikoak

globalizazioari aurre egiteko tresna gisa zuen funtzionaltasuna izugarri azkar galdu duela.

Ez dugu esan nahi gaur egungo lege-esparruko testuinguruan asko hobetu daitezkeen aspektuak ez daudenik, badaude -eta. Adierazten dena da Euskadin bigarren eraldaketa ekonomiko, sozial eta politikoari ekiteko, dagoen zulo estrategikoa marko instituzional berri baten bitartez bakarrik gainditu daitekeela, eta gaur egungo lege-esparrutik ondorioztatutako eskumen-sabaiarentzat mugarri bat dela, enpresen lehiakortasun eta ongizate sozial mailak handitzeko.

Balorazio hori argiro ikusten da lan honek ikertu duen marko instituzionalaren edukia aztertzerakoan. Beraz, autogobernuan sakontzeko egin diren oso zentzuzko eskariei erantzuteko eta etorkizunari bermeez aurre egiteko, Estatu espainiarrarekiko harreman-esparru juridiko-politiko berri bat behar da.

Zentzu horretan, adierazi nahi dugu Estatutu Politiko Berriaren Proposamena -2004ko abenduaren 30ean Eusko Legebiltzarrean gehiengo osoz onartu zena-, XXI. mendeko eredu ekonomiko eta sozial berria itxuratzen duten zutabeen gainean, hazkunde eta elkartasunaren esparru ekonomikoa eraikitzeke ekarpen bat dela. Horren aurka esan daiteke autogobernu ikuspegi berriak indarrean dagoen Estatutuaren testuarekin zehazki bat ez datozela. Eta egia da, izan ere, behar diren aldaketa eta egokitzapen asko esperientziaren aprobetxamendutik sortzen dira, eta, batez ere, azken 30 urteotan gertatu diren aldaketa ekonomiko, aldaketa sozial eta instituzional handietatik. Aldiz, horrek eragiten duen gauza bakarra aldaketa beharra aldarrikatzearena da, izan ere, iraganean sinatutako itun politikoak betetzea bezain garrantzitsua da gaur egun dauden eskaeretara moldatzea.

Azken batean, erakundeen xedea beti izan behar da moldatzea, ez mantentzea.

Donostia, 2010eko urriaren 25a